1-12-2010

EL GOBIERNO VASCO TRABAJA CON LA FAMILIA UNA SOLUCIÓN A CHILLIDA LEKU

En relación al ERE temporal presentado en Chillida Leku y al cierre igualmente temporal de ese espacio desde el 1 de enero de 2011, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco desea manifestar:

1. Lamenta que la situación de dificultad de la gestión económica del museo, que se arrastraba desde hacía tiempo, haya tenido que desembocar en esas medidas.
2. Chillida Leku es una de las referencias patrimoniales y culturales más importantes con que cuentan Gipuzkoa y Euskadi, y es compromiso de este Gobierno hacer lo posible por su continuidad.
3. Con ese objetivo lleva trabajando con la familia Chillida desde hace más de un año, con el compromiso de elaborar un sólido informe de situación tanto de la gestión del espacio actual como de la propiedad del mismo, que sirva para emprender una negociación a varias bandas que, de resultar exitosa, asegure la continuidad futura de Chillida Leku.
4. A día de hoy ese informe técnico ya está concluido y presentado a la familia Chillida, con lo que acaba de iniciarse el proceso de negociación para tratar de buscar una solución futura sobre esa doble base: un modelo de gestión sostenible para el espacio y un estudio de posibilidades de compartir la propiedad patrimonial del mismo.
5. El Gobierno señala la situación de crisis económica en que se encuentra también nuestro país, pero resalta que ello no es óbice para encarar, como se viene haciendo, un problema de envergadura –la continuidad de Chillida Leku- y buscar entre todos los afectados y concernidos la mejor de las soluciones posibles.
6. Por último, recuerda que, en este tipo de negociaciones, la discreción y la confianza mutua son el mejor escenario.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 95 18 – Fax 945 01 95 35 – e-mail kultura@ej-gv.es

2010-12-01

EUSKO JAURLARITZAK FAMILIAREKIN LANEAN DIHARDU, CHILLIDA-LEKURAKO KONPONBIDE BILA

Chillida-Lekun aurkeztutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteari eta museoa 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aldi baterako ixteari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak honako hau adierazi nahi du:

1. Sentitzen du museoak aspaldidanik jasaten duen egoera ekonomiko zailak neurri horiek hartzea eragin izana.
2. Chillida-Leku Gipuzkoako eta Euskadiko ondare- eta kultura-erreferentziarik garrantzitsuenetarikoa da, eta gobernu honek bere esku dagoena egiteko konpromisoa hartu du, martxan jarrai dezan.
3. Horretarako, Chillidaren familiarekin lanean dihardu urtebete baino gehiagoan, egungo espazioaren kudeaketa nahiz jabetzaren egoera-txostena egiteko, hainbat alderdiren arteko negoziazioak abiatu eta, arrakasta izanez gero, Chillida-Lekuren jarraipena bermatzeko.
4. Txosten teknikoa amaituta dago eta jadanik aurkeztu zaio Chillida familiari, eta horrela negoziazio-prozesu bati hasiera eman zaio irtenbide bat aurkitu asmoz, bi kontu hauek aintzat hartuta: Chillida-Lekurentzat kudeaketa-eredu iraunkorra zehaztea, eta ondarearen jabetza partekatzeko aukeren azterketa egitea.
5. Jaurlaritzak gure herrialdea ere krisialdi ekonomikoa jasaten ari dela adierazi du, baina nabarmendu du hori ezin dela aitzakia izan arazo larri horri –Chillida-Leku itxi behar izateari– aurre egiteko, eta eragindakoen eta parte hartu behar duten guztien artean ahalik eta irtenbiderik onena aurkitzeko.
6. Azkenik, gogorarazi nahi du horrelako negoziazioetan diskrezioa eta elkarrenganako konfiantza ezinbestekoak direla.

SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 80 00 – Fax 945 01 95 35 – e-mail kultura@ej-gv.es